

Amezketako soinujoleak

Jose Franzisko Saralegi Galarza

- Amezketan jaio zen, 1880/07/23an.
- Amezketan hil zen, 1944/07/06an.
- Ahoko soinua jotzen zuen.

Luis Galarza Uzkudun (Luisito)

- Amezketan jaio zen, 1905/03/24an.
- Amezketan hil zen, 1987/07/07an.
- Lanbidez garraiolaria, paper-fabrikan. Gerra aurretik 2 kamioi izatera iritsi zen; lehenengoa erosi zuenean, norbaiti dirua eskatuta, 6 hilabete ibili zen lanean etxean lorik egin gabe; kamioan deskantsatzen omen zuen. Gerra garaian, bi kamioiak kendu zizkioten, eta gerra amaitutakoan azaldu omen ziren, baina bata erreta eta bestea amilduta.
- Domingonea taberna zuten eta hor ezkontzak eta ospakizunak egiten ziren, Donostiako soinujole bat joaten omen zen horietara eta hark irakasten omen zion Luisitori soinua jotzen. Bi soinu omen zituen.
- Soldadutza Ceutan egin omen zuen, eta, lehenengo bidaian, soinu zaharrena joz joan omen ziren, baina, iritsitakoan, gero beharko ez zutelako, putzura bota omen zuten; baita damutu ere. Zegamar bat omen zegoen hara ezkontuta, taberna batekin, eta beste soinua eramanda, han aritzen omen zen soinua jotzen; gela bat ere bazuen han.
- Amezketan, Bedaion, Larraitzen, Abaltzisketan eta hainbat lekutan ibiltzen zen soinuarekin. Larraitza astoarekin igotzen ziren, familia osoa, eta han bazkalondoren jotzen zuen.
- Amezketan, S. Joan bezperan, suaren inguruan kantu berezi bat kantatzen zuten, eta, horren ondoren, erromeria izaten zen Luisitoren etxe aurrean, Plazako sua ikusita, hara joaten zen jendea.

Dionisio Etxeberria Galarza

- Amezketan jaio zen, 1923/10/08an.
- Aitak erosi zion soinua, Luisito osabak esanda, hori ere soinujolea izanik gogoia ikusten baitzion ikasteko.
- Lehenengo bere kontura hasi zen soinua jotzen ikasten baina, geroago, Mateo Andoainekin ere ikasi zuen Tolosan.
- Amezketako “Umora Ona” jazpana edo orkestrina sortu zuen, beste batzuekin batera.
- Gehienetan Amezketan jotzen zuten baina inguruko beste herri batzuetan ere aritu ziren festetan jotzen.
- Taldea desegin zenean, bera bakarrik aritu zen soinua jotzen, inguruko herrietan eta Nafarroan.
- Pepe eta Mateo Andoain anaiekin ere aritu zen Donostian soinua jotzen.
- Eskudero maisuak ere ahaleginak egin omen zituen soinuarekin ikasten eta praktikatzeko jarrai zezan.
- Honela dio Joxe Mari Oterminek bere liburuan:

“ Una mención especial merece la figura del acordeonista Dionisio Etxeberria, dotado de unas condiciones interpretativas fuera de lo común. Dionisio fue muy solicitado por distintas comisiones para animar las sesiones de bailables y romerías en infinidad de localidades vascas. Con muy básicas nociones de solfeo, su sentido musical le permitía hacer frente a las mayores dificultades en obras de acordeón tanto en interpretaciones individuales como colectivas. Dicen sus admiradores que tenía una técnica prodigiosa

y su sonido tenía unas características muy especiales. En un momento determinado de su vida decidió abandonar la práctica profesional del acordeón y dedicarse a otros menesteres. Estimaba que la profesión de chofer de camión le garantizaba mayor seguridad. En ese momento perdimos un gran artista. Lástima que no quedara grabada ninguna actuación de Dionisio en sus mejores años.”

Jose Altuna Garmendia

- Amezketan jaio zen, 1930/01/05ean.
- Oinarrizko ikasketak Amezketan egin zituen, eta Tolosan delineatzaile-ikasketak eta ikasketa teknikoak.
- Lanbidea: lehenengo, 14 urterekin, Talleres Tolosan eta, gero, soldadutza egin ondoren, bere kontura jarritako tailerrean.
- Amezketako tipleetan aritua.
- Soinua gustatzen zitzaion eta Jose Tarragonarekin ikasi zuen.
- Gehienetan, etxean jotzen zuen (tabernan); batzuetan, herriko plazan ere bai, igandetan eta.
- Alaba pianista da (Kontxu Altuna), musika eskolako irakaslea.

Inaxio Sarasola Zelaitxiki

- Amezketan jaio zen, 1931/2/11n.
- Hamazazpi urterekin erosi zion trikitixa Dionisiori eta hark irakasten zion. Belarritz ikasten zuen.
- Leku askotan ibilia da soinuarekin: Amezketan, Larraitzen, Bedaion (2 eguneko jaietara eramaten zuten eta hango etxeren batean egiten zituen otorduak eta lo), Abaltzisketako Txantxoekin eta Amezketan Talaiekin urtero ibiltzen zen, 17 urte zituenetik 30 inguru zituen arte.
- Pilotaria izana, leku askotan jokatzeko zuten eta hainbat txapelketa irabazitakoa da. Bere soinuak, 3 ilarakoa, historia luzea omen du:
 - Batzokian zegoen soinua omen zen, Luisitok ere horrekin jotzen omen zuen, 120 urte inguru izango omen ditu.
 - Dionisiori erosi omen zion, eta meategietako langile batek eskatu eta saldu ere bai, baina meategietako lana amaitu zenean, berarekin ez eramateagatik, berriro saldu egin omen zion eta Inaxioren eskuetan geratu omen zen. Oraindik ere erosle asko ditu eta asko ordaindu nahi diotenak gainera, baina ez du saldu nahi.

Lontxo Amundarain Tolosa

- Amezketan jaio zen, 1939/03/19an.
- Sakramentinoetan egon zen ikasten 1955 arte.
- Hor ikasi zuen solfeoa eta pianoa jotzen Iparragirrerekin eta Martin Gorostidirekin.
- Ateratakoan, lanean hasi zen, senide asko baitziren: osabaren lantegian modelista moduan, Fabrensan, eta, ondoren, soldadutzara joan zen. Ondoren, butano-banatzaile, Zubeldiarekin autobus-gidari, Auto eskolako irakasle... ibili da.
- D. Emigdiok erositako soinuarekin ikasten hasi zen, Tolosako Sancho irakaslearekin.
- Amezketako kontzejupean eta pilotalekuan jotzen zuen igandetan (ikus Oterminen liburua “AMEZKETA largo y tortuoso camino”).
- Juan Mari Imazek utzi zuenean, D. Emigdiok irakatsi zion organoa jotzen, eta organista ere izan zen (1963an erositako organoa jotzen zuen).

- Amezketan, argazki laborategia ere izan zuen, eta hainbat lekutan argazkiak ateratzen jardun zuen.
- Sakramentinoetan zegoela, ordurarte erdaraz zegoen ordenaren fundatzailearen bizitza euskaraz jartzen hasi zen, bertsoan, handik atera zen arte. 2003 inguruan, Sakramentinoetako ikasle ohien bilera batean galdegin zioten nola zegoen lan hori, utzita bezala zegoen, eta amaitzeko eskatu zioten, eta horrela egin zuen.
- Billabonan, Eguberrietan eta S. Agedatan kantari ateratzen ziren. Saio horietarako kopla berriak idazten hasi zen eta kantatu ere egiten zituen.
- Koplak eta bertsoak idazten jarraitzen du, eskatzen dizkietenak eta bere gustukoak.
- Billabonako Eresargi abesbatzan kantatzen du; tenorea da.

Maitere Otermin Aierbe

- Amezketan jaio zen, 1964/04/16an.
- Soinu handia jotzen du.
- Solfeoa, harmonia, korala... ikasi zituen Tolosan, Manuel Yabenekin, Kike Ugarterekin eta Isidro Larrañagarekin.
- Isidroren orkestrako kidea izan zen.
- Talaiekin 20 urtez ibilia da soinua jotzen.
- Tolosako Inauterietan, askotan ibilia da soinua jotzen.
- Amezketako festetan eta ospakizunetan jo izan du.

Ana Etxeberria Zarautz

- Amezketan jaio zen, 1965/12/10ean.
- Ikasketak Amezketan, Zumaian eta Tolosan egin zituen. Pedagogiako Lizentziatura Zorroagan lortu zuen.
- Lutxi Mantzizidorren gomendioz Bartzelonara joan zen, Hezkuntza Musikaleko espezialistak formatzeko gradu-ondoko kurtsoak egitera.
- Goi mailako akordeoi irakaslea da.
- Musikoterapiari gradu-ondoko diploma lortu zuen Gasteizko Agruparten.
- Horiez gain musikako ikastaro asko ditu eginak.
- U.E.U.ko musika sailak antolatuta sei urtez eman ditu ikastaroak:
 - o “Amezketako heziketaren historia”.
 - o “Musika entzunaldiak”.
 - o “Kantuaren erabilera irakaskuntzan”.
 - o “Belarriak erne, soinu xokoak, informazio pastela, instrumentazio besta”.
 - o Eta abar.
- U.E.U.k argitaratutako liburu bat idatzia du: “Kantutik jolasera”.
- Hik Hasi aldizkarian argitaratutako artikuluak ere idatzi zituen:
 - o “Musika lantzeko beste modu bat” (Diaporama).
 - o “Gorputza eta bitartekoak musikan I”.
 - o “Gorputza eta bitartekoak musikan II”.
 - o ...
- Bartzelonan ikasketak amaitu ondoren Amezketan hasi zen irakaskuntza lanean, hor Musika Eskola sortu zuen eta Nafarroan dihardu orduz geroztik.

Naiara Errexil Garmendia

- Amezketan jaio zen, 1980/01/16an.
- Heziketa Beregian diplomatua da eta hezitzaile moduan lan egiten du.
- Panderoa jotzen du.

▪Billabonan, Martinen Musika Eskolan ikasi zuen eta iker Goenaga eta Larraitx Goenagarekin ere bai.

Alaitz Errexil Garmendia

▪Ordizian jaio zen 1977/11/14an.

▪Leku askotan ibili dira panderoa jotzen bi ahizpak, txapelketetan ere bai: Gaintzan, Alkizan...

▪Administraritzako ikasketak egin eta horretan lan egiten du.

▪Trikitixa jotzen du.

▪Billabonan, Martinen Musika Eskolan ikasi zuen eta Iker Goenaga eta Larraitx Goenagarekin ere bai.

Ainara Galarza Otamendi

▪Amezketan jaio zen, 1980/10/13an.

▪Haur Hezkuntzako ikasketak egin zituen eta lan horretan dihardu.

▪Ikastetxean, Ana Etxeberriarekin, musikako lehenengo oinarriak hartu zituen.

▪Amezketan, Iker Goenagarekin ikasi zuen trikitixa.

▪Lehenengo, Gautxoriak eta, gero, Triki Up taldeko kidea izana.

▪Eguberrietan, Talaiekin eta herriko beste ospakizun batzuetan jotzen du.

Joseba Goñi Sagastume

▪Amezketan jaio zen, 1980/10/21ean.

▪Lehen Hezkuntzako diplomatura eta Antropologian lizentziatura lortuak ditu.

▪Trikitixa ikasi zuen Iker Goenagarekin Amezketako Musika Eskolan.

▪Gau txoriak taldeko kidea izan zen.

Naiara Beloki Saralegi

▪Amezketan jaio zen, 1982/07/05ean.

▪Irakasle-eskolan egin zituen ikasketak eta irakaskuntzan dihardu.

▪Amezketako Musika Eskolan akordeoia jotzen ikasi zuen, Andoaingo Juan Kruz irakaslearekin, eta solfeoa Anarekin.

▪Herrian ibiltzen da soinuarekin: Santa eskean, Talaiekin, Eguberrietan eta herriko beste ospakizun batzuetan.

Yolanda Gorostidi Otamendi

▪Amezketan jaio zen, 1982/09/23an.

▪Administrazio eta Finantza teknikaria da.

▪8-9 urterekin hasi zen musika ikasten, solfeoa eta akordeoia, Amezketako Musika-Eskolan.

▪22 urte inguru arte aritu zen musika ikasten.

▪Herriko ekitaldi eta ospakizunetan parte hartzen du: Musika-Eskolako jaialdiak, Zumadi eskolako jaialdiak, Eguberrietan kantariei lagundu, Inauterietan Talaiekin jardunak...

▪Estankoko Anak (irakasleak) eragin handia izan omen zuen musika ikasten hasteko.

▪Hasieratik “hobby” moduan hartu zuen eta garbi zuen horrela izango zela bere bizitza osoan, baina akordeoia bere bizitzako zati bat da.